



I. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

Foru Enpresak eta Foru Erakundeak

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea (GUFÉ)

LH2ko Sukaldarien kategorian lan-kontratuko langileen aldi baterako beharrak betetzeko lan-poltsa eratzeko deialdiaren oinarriak onartzea.

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzak, 2024ko ekainaren 11n egindako ohiko bileran (2/24 akta), besteak beste, honako erabaki hau onartu zuen:

«*Lehenengoa:* LH2ko sukaldarien kategorian lan-kontratuko langileen aldi baterako beharrak betetzeko lan-poltsa bat eratzeko lehiaketaren oinarriak onartzea. Oinarri horiek eranskin gisa gehitu dira.

Bigarrena: Erabaki hau eta bere oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, iragarki-taulan eta GUFÉren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena: GUFÉko gerentea gaitzea deialdi hau izapidetzeko behar diren ebazpen guztiak eman ditzan.»

Bilbon, 2024ko ekainaren 21ean. — GUFÉ-ko Gerentea, David Latxaga Ugartemendia

**ALDI BATERAKO APARTEKO LAN-POLTSA BAT ERATZEKO OINARRIAK,
LH2KO SUKALDARIEN KATEGORIA PROFESIONALERAKO****1. Arau orokorrak**

1.1. Aparteko lan-poltsa bat eratzeko prozedurarako deialdia egiten da, LH2ko sukaldarien kategoria profesionalerako, lan-kontratuko langileentzat GUFEn gordetako lanpostuak aldi baterako betetzeko.

1.2. Deialdi honek lotzen ditu erakundea —administrazioa den aldetik— eta bertan parte hartzen dutenak.

1.3. Aparteko lan-poltsak izaera subsidiarioa izango du GUFEn indarrean dagoen lan-poltsarekiko, zeina lan publikoaren berariazko eskaintza baten ondoriozkoa baita; gainera, ondorerik gabe uzten ditu hura ez beste poltsa partikular guztiak.

1.4. Aparteko poltsa horretan sartutako izangaiei besteak beste aplikatuko zaizkie indarrean dagoen hitzarmen kolektiboa eta urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, zeinaren bidez onesten baita Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina.

1.5. Izangaiek hautatzeko prozesua eta aparteko lan-poltsaren funtzionamendua oinarri hauetan xedatutakoaren arabera arautuko dira. Kontratu-hobekuntzaren eta dei-penalizazioaren kasuetan, Poltsak Kudeatzeko Irizpideak izeneko agirian xedatutakoa beteko da. Bestalde, aldi baterako kontratazioak iraun bitartean gertatzen diren gainerako inguruabar bereziak Lan Poltsen Jarraipenerako Batzordeari jakinaraziko zaizkio, hala badagokio, haiek azter ditzan.

1.6. Deialdi honen oinarriak <http://www.ifas.bizkaia.eus> webean kontsulta daitezke Lan-poltsak / Lan-poltsa subsidiarioak atalean.

1.7. GUFEn zerbitzurako lan-kontratuko langileen aparteko lan-poltsak bete beharko ditu datu pertsonalen babesari buruzko legerian horrelako euskarrietarako xedatutako eskakizun eta baldintza guztiak, zeinak ezartzen baitituzte abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babestu eta Eskubide Digitalak Bermatzekoak, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendu Orokorrak, Datuak Babestekoak (DBEO).

2. Izangaien betekizunak

2.1. Aparteko lan-poltsan parte hartzeko onartua izate aldera, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Espainiako nazionalitatea izatea, edo
- Europar Batasuneko gainerako estatu bateko nazionalitatea izatea, edota Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko hitzarmenak direla bide langileei zirkulatzeko askatasuna ematen dien estatu bateko nazionalitatea. Gainera, Espainiako edo Europar Batasuneko gainerako estatu kideetako bateko nazionalitatea dutenen ezkontideek ere parte har dezakete, nazionalitatea zein-nahi den, bai ere Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko hitzarmenak direla bide langileei zirkulatzeko askatasuna ematen dien estatu bateko nazionalitatea dutenen ezkontideek, dagokion hitzarmenak hala jasotzen badu eta zuzenbidez banatuta ez badaude. Halaber, baldintza berberekin har dezakete parte haien ondorengoek eta haien ezkontideen ondorengoek, baldin eta hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo haien kontura bizi diren adin horretatik gorakoak.

Espainiarrek dituzten baldintza berberetan iritsi ahal izango dira administrazio publikoetara aurreko lerroaldeetan adierazitako atzerritarrak eta Espainian legezko bizilekua duten atzerritarrak.

- Hamasei urte beteta edukitzea eta, hala dagokionean, nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adinetik gorakoa ez izatea.
- Dagokion izendapenaren ondoriozko eginkizunak betetzeko behar den gaitasun funtzionala izatea.



- e) Lan-kontratuko langile finkoa ez izatea lortu nahi den postuaren kategoria berean.
- f) Ez izatea GUFEn kategoria berean indarrean dagoen prozesuaren ondoriozko lan-poltsaren parte.
- g) Ez egotea diziiplina-espeditente bidez zerbitzutik berezita autonomia-erkidegoetako edozein administrazio publikotan edota organo konstituzional edo estatutarioan, eta ez egotea ebazpen judizial bidez enplegu edo kargu publikoetarako era absolutu edo berezian desgaituta lehen betetzen zituztenen antzeko eginkizunak betetzeko, bereziak edo desgaituak izan diren lan-kontratuko langileen kasuan. Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek ere egiaztatu beharko dute ez daudela desgaituta edo egoera baliokidean eta ez dutela jaso diziiplina-zehapenik edo baliokiderik euren Estatuan enplegu publikora baldintza berberetan iristea eragozten dienik.
- h) Titulazio hauetako edozein edukitzea: Jatetxe-arloko zerbitzuen zuzendaritzako goi-teknikaria; Sukalde-zuzendaritzako goi-teknikaria; LH2ko sukaldaria, edo baliokideak. Titulazio guztiok Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak ematen ditu.
Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, beharrezkoa izango da tituluen homologazioa egiaztatzen duten agiriak edukitzea.
- i) Elikagaien manipulaziorako formakuntzaren ziurtagiri indibiduala edukitzea.

2.2. Goian ezarritako betekizun guztiak beteta eduki behar dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, eta mantendu behar dira aldi baterako lan-kontratuak gauzatzen den unera arte.

3. Eskabideak aurkeztea

3.1. Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabideak egutegiko hamabost (15) eguneko epearen barruan aurkeztuko dira, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskabideak, eskatutako dokumentazioarekin batera, eskaera elektronikoki bidez aurkeztuko dira Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa, kontuan harturik 66.6 artikuluan xedatzen duena 39/2015 Legeak, www.ifas.bizkaia.eus webguneko atal hauetan: Lan-poltsak/Lan-poltsa subsidiarioak/Indarrean dauden lan-poltsak deialdiak/LH2ko sukaldaria. Azken atal horretan, sakatu «Web eskabidea» botoia.

Aurrekoaz gain, halaber egongo da erabilgarri eredu ofizial eta normalizatu bat, eranskin gisa gehitu dena. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen diren leketan ere aurkeztu ahal izango dira.

3.2. Eskabidearekin batera hauek aurkeztu beharko dira nahitaez:

- GUFeko aldi baterako lan-kontratuko langileek «Hautaketa-prozesuetarako datuen ziurtagiria» bakarrik aurkeztu beharko dute, Giza Baliabideen Zuzendariordeztzak emana. Izangaiek egoitza elektronikoa eskuratu ahal izango dute ziurtagiri hori, Nire kudeaketak / Nire jakinarazpen eta komunikazioak atalean.
Halere, ziurtagiri horretan agertzen ez diren betekizun guztiak jaso beharko dira, eta eskabidearekin batera aurkeztu, osterantzean ezingo da-eta prozesuan parte hartu.
- Tituluaren edo hura lortzeko ordaindutako eskubideen kopia.
- Elikagaien manipulaziorako formakuntzaren ziurtagiriaren kopia.
- Alegatutako merezimenduen zerrenda. GUFeko aldi baterako lan-kontratuko langileek alegatu beharko dituzte «Hautaketa-prozesuetarako datuen ziurtagirian» agertzen ez diren merezimenduak.
- Administrazio publikoetan egindako zerbitzuekin lotuta alegatutako merezimenduen egiaztagirien kopia. GUFeko aldi baterako lan-kontratuko langileek kopiatan aurkeztu beharko dituzte «Hautaketa-prozesuetarako datuen ziurtagiria» agertzen ez diren merezimenduak.



— Hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiriaren kopia, baldin eta datu hori ez badago egiaztatuta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan. Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzen badira apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babespean, zeinaren bidez arautzen baita euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko prozedura, izangaiek dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute, non salbueste hori ez dagoen jasota aipatutako Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan.

3.3. Eskabidean alegatutako merezimenduak soilik baloratuko dira. Balorazio Batzordeak ez ditu aintzat hartuko alegatu diren baina justifikatu gabe dauden merezimenduak.

Eskabidearekin batera ez badira aurkezten oinarriotan eskatutako titulua eta elikagaien manipulaziorako ziurtagiria edo alegatutako merezimenduen egiaztatzea, hizkuntza eskakizunari dagokiona barne, ezingo da zuzenketarik egin erreklamazio-fasean, salbu eta aurkeztu ez izanaren arrazoia —behar bezala justifikatuta eta Balorazio Batzordeak halakotzat irizita— ezin zaionean izangaiari zuzenean egotzi.

Titulu, NAN/AIZ, merezimendu-egiaztagiria eta, hala badagokio, desgaitasun-ziurtagiri originalak nahitaez aurkeztu behako dira Giza Baliabideen Zuzendariordetzan, lan-kontrataziorako lehen deia egiten denean, egiten baldin bada. Agiriok ez aurkezteak edo faltsuak izateak berekin ekarriko du hala konfiguraturako lan-poltsan parte hartzeko eskubidea galtzea. Horrez gain, izangaiek bere gain hartu beharko ditu dokumentu bat faltsutzeagatik eratorzen zaizkion erantzukizun legalak.

4. Balorazio batzordea

4.1. Balorazio Batzordea kide hauek osatuko dute:

— Epaimahaiburua:

- Alazne Rubio Terradillos, Giza Baliabideen zuzendariordea.

— Epaimahaikideak:

- Rosa García García, Kudeaketa Administratiboaren Arloko burua.
- María José Larrinaga Artetxe, Aukeraketa eta Hornikuntza Arloko burua, jarduneko.
- Igor Velado Fernández, Aukeraketa eta Hornikuntza Arloko goi-mailako teknikaria.
- Ramón Gutiérrez Fernández, Leioa Laguntza Zentroko sukaldaria.

— Idazkaria:

- Fidel Martínez Ruiz jauna, legelari aholkularia.

Idazkariak hitza izango du, baina botorik ez.

4.2. Balorazio Batzordea ezingo da eratu, ezta jardun ere, ez badaude presente epaimahaiburua eta idazkaria —edo, hala dagokionean, haien ordezkioak— eta epaimahaikideen erdiak.

Batzordeak eskumena izango du deialdi honen aplikazioaren ondorioz sortutako gorabehera guztiak aztertu eta interpretatzeko, bai eta aurreikusi gabeko kasuetan nola jardun erabakitzeko ere.

4.3. Jakinarazpen eta gainerako intzidentzietarako, Balorazio Batzordearen egoitza GUFEn bulegoetan egongo da.

4.4. Batzorde horretan parte hartzeagatik egiten diren bertaratze, lankidetzeta eta abarrekin lotutako ordainak arautzeko, kontuan hartuko da zer xedatzen duten Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuak, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzkoak, eta abenduaren 19ko 267/2000 Dekretuak, zeina bere artikulua bakarrean eguneratzen baitu ekainaren 13ko 121/2006 Dekretuak, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko dekretua hirugarren aldiz aldatzekoak (2006ko ekainaren 28ko EHAA, 122. zenbakia).

**5. Baloratzekoak diren merezimenduen egitura eta sailkapena**

Hautaketa-prozesua merezimenduen balorazio-fase bakarrean egituratuko da, baremo honen arabera:

A) Lanbide-esperientzia: apartatu honetan gehienez 30 puntu emango dira, baremo honi jarraituz:

– Egindako zerbitzuak lan egindako hilabete bakoitzeko baloratuko dira. Egindako zerbitzuen ziurtagirietan, urtetan adierazita ageri den denbora hiletara aldatuko da, urteko hamabi hilabete zenbatuta; egunetan adierazitakoa, berriz, hiletara aldatuko da, hilabeteko hogeita hamar egun zenbatuta.

– Administrazio publikoetan egindako zerbitzuengatik, deialdiaren xede den kategoria profesionalean: 0,18 puntu lan egindako hilabete oso bakoitzeko. Alegatutako merezimenduak zenbatzeko erreferentziako muga-eguna beti ere izango da deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den data.

Ondorio horietarako, administrazio publikotzat joko dira arau hauetan jasotako erakundeak: urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 2.1, 2.3 eta 4 a), b) eta c) artikulua, eta Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 3.2 eta 3.4 artikulua. Zerbitzuak orobat zenbatuko dira zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan egin direnean; ez ordea izaera publikoko beste erakunde batzuetan egin direnean, baldin eta enpresa, merkataritza-sozietate edo elkarte nahiz korporazio publikoen forma juridikoa badute. Horrelakoak hurrengo apartatuaren arabera baloratu ahalko dira.

– Sektore pribatuan egindako zerbitzuek, deialdiaren xede den kategoria profesionalean: 0,10 puntu lan egindako hilabete oso bakoitzeko.

Alegatutako merezimenduak zenbatzeko erreferentziako muga-eguna beti ere izango da deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den data.

Egindako zerbitzuen egiaztapena: Merezimendu publikoak Administrazioaren agiri edo ziurtagiri bidez ziurtatu beharko dira. Eta sektore pribatuari dagozkionak, zuzenbidean baliodun eta nahikoa den edozein frogabide erabilita.

Nolanahi ere, egindako zerbitzuen ziurtagiriek, lan-kontratuek edo lan-bizitzari buruzko txostenek beti ere jaso beharko dituzte kategoria, lanaldiaren ehunekoa eta lan egindako aldiak; lanaldi partzial edo murriztuan lan egindako aldiak lanaldi osoan lan egindakotzat zenbatuko dira.

Era berean, egoki betetze aldera 20.1c) artikuluan xedatzen duena martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak, zeinaren bidez onesten baita emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina, kontuan hartuko da, esperientzia profesionala baloratzeko, izangaia zenbat denbora egon den eszedentzia-egoeran senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik, zenbat denbora egotz dakiekeen lanaldi-murrizketei edo baimenei, baldin aurreikusitako xedetzat badute amatasuna edo aitatasuna babestea edota bizitza pertsonal, familiar eta laboralaren kontziliazio erantzunkidea sostengatzea, eta enplegatuek zenbat denboratan erabili dituzten genero-indarkeriaren ondoriozko baimenak.

B) Euskara: 1HEa egiaztatzea 2,5 punturekin baloratuko da.

Bizkaiko Foru Aldundian edo GUFEn hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatuta daukatenek ez dituzte berriro egiaztatu behar parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluaren eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztatuta daukatenek ere. Azken kasu horretan, parte-hartzaileak GUFeri berariazko baimena emango dio erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

Hala ere, euskarazko beste titulu edo ziurtagiri guztiak bai aurkeztu beharko dira baldin eta, erregistro horretan sartuta ez egon arren, parekatuta badaude azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera, zeinaren bidez baliozkotzen baitira euska-



raren jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak eta parekatzen baitira Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko mailekin.

Jarduten badute apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babespean, zeinaren bidez arautzen baita euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuesteko prozedura, izangaiak aurkeztu beharko dute hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko behar den ziurtagiri akademikoa, non eta salbueste hori ez dagoen jasota aipatutako Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan.

6. Izangaien poltsak eratzea

6.1. Eskabideak aurkezteko epea amaituta, eta Balorazio Batzordeak behin baloratu ondoren izangaiak egiaztatutako merezimenduak, GUFeko Gerentziak onetsi egingo ditu onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrendak. Baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia ere zehaztu beharko da. Onartutako izangai bakoitzak lortu dituen puntuak jasoko dira zerrenda horretan, eta GUFeren iragarki-oholean eta webgunean argitaratzeko agindua emango da.

Interesdunek egutegiko 10 eguneko epea izango dute, behin-behineko zerrenda argitaratzen denetik, bertan jasotako datuak zuzendu edo haien inguruko alegazioak aurkezteko. Erreklamazioetan ezingo da ez hizpidera ekarri ez egiaztatu eskabidean alegatutako beste merezimendurik. Balorazio Batzordeak ez du kontuan hartuko zuzenketak egiteko epean aurkeztutako dokumenturik merezimenduak areagotzea dakarrenik.

Epe hori amaituta, Balorazio Batzordeak txostena egingo du interesdunek aurkeztutako alegazioen gainean, eta Erakundeko Gerentziari proposatuko zaio lan-kontratuko langileak kontratatzeko aparteko lan-poltsa behin betiko onesteko ebazpena. Izangai bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera antolatuko da lan-poltsa.

6.2. Deialdi honetako bosgarren oinarrian ezartzen den baremoaren arabera lortutako puntuazio guztien baturak zehaztuko du azken puntuazioa.

Kontuan harturik 21. artikuluan xedatzen duena 1/2023 Legegintzako Dekretuak, zeinaren bidez onesten baita emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testuategina, gaikuntza-berdintasuna gertatuz gero, lehentasuna emakumezkoen emango zaie emakumezkoen ordezkariak 40tik beherakoa den administrazioko kidego, eskala eta kategorietan. Salbu eta, beste izangaiaren kasuan, sexu-bereizkeriarekin lotuta egon gabe neurria ez aplikatzea justifikatzen duen inguruabarririk badago, hala nola lana lortzeko zailtasunak dituen kolektibo bateko kide izatea.

Horrez gain, aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, berdinketarik gertatzen bada parte-hartzaileen artean, hurrenkera ezartze aldera kontuan hartuko da bosgarren oinarrian adierazitako merezimendu bakoitzean lortutako puntuazio handiena, oinarri horretan esleituta daukaten ordenaren arabera.

Berdinketa hausten ez bada, izangaien abizenen hurrenkera alfabetikoari helduko zaio, «W» letrarekin hasita, hala zehazten baitu Lurralde Politikako eta Administrazio Publikoko Estatu Idazkaritzaren 2023ko uztailaren 27ko ebazpenak (2023ko uztailaren 19ko EAO, 180. zenbakia), zeinaren bidez argitara ematen baita Estatuko Administrazioaren Zerbitzurako Langile Sartzeko Araubide Orokorrak aipagai duen zozketaren emaitza. Berdinketak bere horretan badirau, izangairik zaharrenaren alde egingo da.

6.3. Prozesu honen ondoriozko zerrenda GUFeren iragarki-oholean eta webgunean argitaratuko da eta indarrean mantenduko da harik eta aparteko beste lan-poltsa bat –aurrekoa ordezkatzeko duena– edo, nolahi ere, beste EPE bat egiten de arte.

7. Azken arauak

7.1. Oinarri hauetan aurreikusitako gabekoetan, honako arau hauetan ezarritakoarekin bat egingo dira hautaketa-probak: urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, zeinaren bidez onesten baita Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina, abenduaren 1eko 11/2022 Legea, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa,



apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriena, garapen-legeria eta aplikatu beharreko gainerako xedapenak.

7.2. Deialdia, deialdiaren oinarriak eta deialdiaren eta epaimahaiaren jarduketan ondoriozko administrazio-egintza guztiak aurkaratu ahal izango dituzte interesdunek; horretarako kasuak eta forma ezarrita daude Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean.

7.3. Espezifikoki, deialdi honen kontra aukerako berraztertze-errekurtsoa jar daiteke GUFeko Gobernu Batzordearen aurrean, hilabeteko epean, edota administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, administrazioarekiko auzien Bilboko epaitegietatik txandaren arabera dagokionean, bi hileko epean. Ezingo dira errekurtso biak batera jarri.



1. ERANSKINA / ANEXO I

ALDI BATERAKO LAN-POLTSA - ONARPEN ESKABIDEA
BOLSA DE TRABAJO TEMPORAL - SOLICITUD DE ADMISIÓN

1. Deialdia / Convocatoria

Taldea eta azpitaldea / Grupo y subgrupo:	Kategoria / Categoría:
---	------------------------

2. Norberaren datuak / Datos personales

Lehen deitura / Primer apellido:	Bigarren deitura / Segundo apellido:	Izena / Nombre:
NAN-ANZ / DNI-NIE:	Jaioteguna / Fecha nacimiento:	Sexua / Sexo: <input type="checkbox"/> E / M <input type="checkbox"/> G / H
Helbidea: kalea edo plaza, zenbakia, solairua / Dirección: calle, plaza, número, piso:		
PK / P.C:	Herria / Localidad:	Lurraldea / Territorio:
Telefonoa / Teléfono:	Posta elektronikoa / Correo electrónico:	
Desgaitasuna duen pertsona: Persona con discapacidad: <input type="checkbox"/> BAI / SI <input type="checkbox"/> NO / EZ	GUFeko lan-kontratu mugagabeko langile finkoa: Personal laboral indefinido fijo del IFAS: <input type="checkbox"/> BAI / SI <input type="checkbox"/> NO / EZ	

3. Deialdian eskatutako titulazioa / Titulación exigida en la convocatoria

Oinarri berezietan eskatzen den titulazioa / Titulación exigida en las bases específicas:

4. Euskara /Euskera

Egiatztatutako hizkuntza-eskakizuna/ Perfil acreditado: 1HE /PL1: <input type="checkbox"/> 2HE /PL2: <input type="checkbox"/> 3HE /PL3: <input type="checkbox"/> 4HE /PL4: <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatze baimena ematen dut / Autorizo su comprobación en el Registro Unificado de Títulos y Certificaciones de Euskera.
--



Beheko sinatzaileak eskabide honetan adierazten den aldi baterako lan-poltsan onartua izatea eskatzen du, eta eman dituen datuak benetakoak direla adierazten du; baita deialdiak eskatzen dituen baldintzak betetzen dituela ere. Halaber, konpromisoa hartzen du eskaera honetan jarritako datu guztiak agiriaren bidez frogatzeko.

La persona abajo firmante solicita ser admitida en el proceso de constitución de bolsa de trabajo temporal a que se refiere la presente instancia y declara que son ciertos los datos consignados en ella y que reúne las condiciones exigidas en la convocatoria, comprometiéndose a probar documentalmente todos los datos que figuran en esta solicitud.

Tokia / Lugar	Urtea / Año	Hilabetea / Mes	Eguna / Día

Sinadura / Firma

Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen kudeatzailea / Gerente del Instituto Foral de Asistencia Social.

Europar Parlamentuko datu pertsonalen babeserako 2016/679 Araudia betetzeko, jakinarazten dizugu eskabide honetan agertzen diren datuak norberaren datuen fitxategi automatizatuan jasoko direla. Fitxategi horren helburua hautaketa-prozesu hau kudeatzea da, baita prozesutik sortuko diren lan-poltsak kudeatzea ere. Lan-poltsak beste administrazio batzuei utziko zaizkie eskatuz gero. Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea da fitxategiaren arduraduna, beraz, datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeke, organo horretara jo beharko duzu (Ugasko bidea 5bis, 1.solairua 48014-Bilbo).

Según el Reglamento 2016/679 del Parlamento Europeo relativo al tratamiento de datos personales, le informamos que los datos personales contenidos en esta instancia formarán parte de un fichero automatizado de datos personales cuyo objeto será la gestión de este proceso selectivo, así como la correspondiente a las bolsas de trabajo que se deriven del mismo y que serán, en su caso, cedidas a otras administraciones públicas previa solicitud por éstas. El responsable de este fichero es el Instituto Foral de Asistencia Social, y ante él podrán ejercitarse los derechos de acceso, rectificación y cancelación (Calle Camino de Ugasko, 5 bis, 1, 48014-Bilbao).



MEREZIMENDUAK / MÉRITOS

1. Norberaren datuak / Datos personales

Lehen deitura / Primer apellido:	Bigarren deitura / Segundo apellido:	Izena / Nombre:
NAN-ANZ / DNI-NIE:	Kategoria / Categoría:	

2. Aurkeztutako merezimenduaren zerrenda / Relación de méritos alegados

Soilik adierazi zein administrazio publikotan eta sektore pribatuan egin duzun lan. Eskatera-orriari lan egindako administrazio publikoen ziurtagiriak gehitu beharko zaizkio / Relacionar únicamente las administraciones públicas y el sector privado en los que se han prestado servicios adjuntando los correspondientes certificados de servicios prestados.

1)
2)
3)
4)
5)
6)
7)
8)
9)
10)
11)
12)
13)
14)
15)
16)
17)
18)
19)
20)

Tokia / Lugar	Urtea / Año	Hilabetea / Mes	Eguna / Día

Sinadura / Firma



INTERESATUARENTZAKO JARRAIBIDEAK

Orokorrak

- Makinaz edo boligrafoz bakar-bakarrik eta letra handiak edo inprenta motakoak erabiliz idatz ezazu.
- Zehaztasunak ale guztietan argi irakur daitezkeela berma ezazu.
- Ez ezazu orririk tolestu eta zuzenketa, hobekuntza edo ezabaketarik egin.
- Inprimakia izenpetu egin behar duzu.

Derrigorrezko dokumentazioa

Eskaera-orriari ondokoak batu beharko zaizkio nahitaez:

- Tituluaren kopia edo hura lortzeko eskubideak ordainduta izatearen agiria.
- Elikagaien manipulatzaileren ziurtagiriaren kopia.
- Alegatutako merezimenduen zerrenda.
- Lan egindako administrazio publikoen eta sektore pribatuan aurretiazko zerbitzuen ziurtagiriaren kopia.
- Hizkuntz-eskakizunaren ziurtagiriaren kopia; Euskara Tituluen eta Ziurtagiriaren Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri ez direnak soilik.
- GUFeko aldi baterako lan-kontratuko langileek hautaketa-prozesuetarako datuen ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

INSTRUCCIONES PARA LA PERSONA INTERESADA

Generales

- Escriba solamente a máquina o con bolígrafo sobre superficie dura, utilizando mayúsculas o tipo de imprenta.
- Asegúrese de que los datos resultan claramente legibles en todos los ejemplares.
- Evite doblar el papel y realizar correcciones, enmiendas o tachaduras.
- No olvide firmar el impreso.

Documentación obligatoria

A la instancia se acompañará necesariamente:

- Copia del título o de los derechos abonados para obtenerlo.
- Copia del certificado de manipulación de alimentos.
- Relación de méritos alegados.
- Copia acreditativa de los méritos alegados correspondientes a los servicios prestados en las Administraciones Públicas y el sector privado.
- Copia del certificado del perfil lingüístico; tan solo para el supuesto de que tal circunstancia no figure acreditada en el Registro Unificado de Títulos y Certificaciones de Euskera.
- El personal laboral temporal del IFAS deberá aportar el certificado de datos para procesos selectivos.